



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko irailaren 18an

72 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan (3. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo kuarteleko tiro poligonoa berehala itxi dezaten (4. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Nafarroan Munduko Pilota Txapelketa egiteari buruzkoa (6. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako 1998-2005 Planari buruzkoa (7. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzko 58/1999 Foru Aginduan egindako aldaketei buruzkoa (8. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, adindunendako podologi laguntza-ren programari buruzkoa (9. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, aurtengo Nafarroako Jaialdiei buruzkoa (10. or.).
- Galdera, José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruzkoa (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko abenduan bidali dituen erabaki, foru agindu eta ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (11. or.).
- Biltzarrean izan diren alta eta baja (31. or.).
- Virginia Izquierdo Barásoain andrea Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartzea (31. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoaingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua Aitzoaingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezte ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du batzordean eztabaida eta onets dadin.

Joan den abuztuaren 24an, sute izugarri bat gertatu zen Ezkaba mendian, eta mendebaldeko hegia suntsitu egin zuen. Datu ofizialei jarraituz, suteak 102 hektarea erraustu zituen, eta kontseilari Marcotegui jaunak uste badu ere egindako kalteak oso gutxi direla, suntsitutako oihanaren balio ekonomikoaz aparte, ikuste hutsarekin esan daiteke besterik dela.

Ez da hau izan mendiaren alde horretan izaniko lehen sutea, ez eta sute bakarra ere. 1985ean ere oraingoa baino ondorio okerragoak izan zituen sutea gertatu zen, eta sekula ez da argitu nola sortu zen. Halaber, herriko auzokoek gogoan dute beste su txiki batzuk ere gertatu direla, baina ez da haien berri izan, ez baitira kezkatzeko adinakak izan.

Azken sute honi dagokionez, badirudi Aitzoaingo tiro-eremu militarren arduragabeko erabilera-rengatik gertatu dela, 35 graduko tenperatura eta orduko 60 kilometroko haize boladak zeuden arratsalde batean tiro-praktikak egiten ari ziren bitartean. Gutxienez ere, jokaera arduragabe, axolagabe eta ausarkeriaz beterikoa izan da.

Halaber, kezkarria da Nafarroako Gobernuak Armadarekiko erakutsi duen jokabide otzarena. Gai honetako arduradunak, Marcotegui jaunak, erantzukizunak galdatzeaz hitz egiterakoan zera esan zuen: "ez du horrenbeste ardurarik diruzehapen bat ezartzea; bai, ordea, erantzukizun hori oihan hauek mantentzeko eta kontserbatzeko jarduerekin konpentsatzea".

Burugabekeria izateaz gainera, ez dado dudarik mota honetako neurri bat, lege ezarritako zehapena kontuan hartzen ez duena, baztertzaila izanen litzatekeela, argi eta garbi, oihanetan sua eragitearen erantzukizuna beren gain hartu behar izan dutenentzat.

Gainera, azpimarratu beharra dago tiro-eremu bat izatea oihan baten ondoan ingurumenaren aldetik erantzukizun handikoa dela eta arriskua dakarkielako inguruko biztanleei eta Ezkaba mendiaz gozatu nahi duten guztiei. Horietako askok, galdutako balen txistua nozitu dituztenek, egiazta dezakete hori.

Ez da lehenbiziko aldia tiro-eremu horrek ukitutako toki entitateek hura desagertzea eskatu dutena; udaletako hirigintza arauetan ere hala jaso da.

Iruñerriko Eskualdeko Arauetan aurreikusita dago Ezkaba eskualderako parke handi bat. Argi eta garbi dago aisiarekin eta ingurumenarekin loturiko erabilera hori ez datorrela bat tiro-eremuak bertan jarraitzearekin, baldin eta Ezkaba mendia aisiarako natur eremu deklaratzeko nahi badugu.

Hori guztia dela eta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena ekarri du, onets dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aitzoingo tiro-eremu militarra kentzeko behar diren kudeaketak bereha-

la egin ditzan, eremu horretako biztanleentzat eta Ezkaba mendiko ingurumenak bere osoan irauteko ekar dezakeen arrisku argiarengatik.

Iruñean, 2000ko irailaren 5ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoingo kuarteleko tiro poligonoa berehala itxi dezaten

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua Defentsa Ministerioa eta Nafarroako Gobernua Aitzoingo kuarteleko tiro poligonoa berehala itxi dezaten premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaida dadin.

Abuztuaren 24an Ezkaba mendiko 100 hektareako azalera erre zen, Aitzoingo kuartelak mendi horretan duen tiro poligonoan egiten ari ziren maniobretan arduragabekeriak jokatzeagatik, antza denez.

Hori dela-eta eragin den kaltea larria da, Iruñerriko biztanleentzat denbora-pasa eta aisiarako tokia den hori lehengoratzeko urte luzeak beharko baitira; alde hori, gainera, Iruñerako eta Iruñerria-

ko aisiarako natur eremu deklaratzeko nahia zegoela kontuan harturik.

Harrigarria da militarren tiro poligono bat egoitea non eta Nafarroako bizigunerik handienetik hain hurbil dagoen aisiarako eremu batean; izan ere, zentzuzkoa dirudi egun erabiltzen den tiro poligono hori ixteak, hainbat arrazoi tartean direla, hala nola, gutxieneko zuhurtzia, alde horretako ingurumen balioen iraupena eta aipatu eremua aisiarako erabiltzen duten pertsonen lasaitasuna bera.

Horixe da, hain zuzen ere, Ezkaba mendiaren inguruko udal entitateen arduradunek eskatu dutena.

Horregatik guztiagatik IUN-NEB Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioa premiatzen du Aitzoingo kuarteleko Ezkaba mendian duen tiro poligonoa beherala itxi dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Defentsa Ministerioari Ezkaba mendiko tiro poligonoa ixteko eska diezaion.

3. Erabaki hau igortzea hauetara:

– Gobernu Zentraleko Defentsa Ministerioa.

– Nafarroako Gobernuoko Ingurugiro Departamentura.

– Berribeitiko Udalera.

Iruñean, 2000ko irailaren 6an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuak familientzako dirulaguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, mozioak arautzen dituen Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluari eta ondorengoei jarraituz, mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen du familientzako diru laguntzak arautzen dituzten 241/2000 eta 242/2000 Foru Dekretuetan jasotako manu batzuk alda ditzan.

2000ko ekainaren bukaera aldean, jaiotza kopurua sustatzea eta seme-alaba zaintzeko eszedentziarako eskubidea gauzatzeko bidea ematea helburu zuten bi foru dekretu onetsi zituen Nafarroako Gobernuak; hain zuzen ere, 241/2000 Foru Dekretua, erditze berean bi haur edo gehiago izan dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen, eta 242/2000 Foru Dekretua, langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko neurri osagarri gisa onetsi diren zuzeneko dirulaguntzak arautzen dituen.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, emakumeak familian betetzen duen tokiari buruz Nafarroako Gobernuak duen filosofiarekin bat ez badator ere, dekretuek bidea ematen dute zenbait laguntza emate-

ko, Nafarroako jaiotza kopurua sustatzearen Nafarroako Parlamentuak adierazi zuen desioarekin bat etorriz. Gure ustez, beraz, egokia da Gobernuak bi dekretu horiek onestea, Nafarroako Parlamentuak bere denboran horri buruz onetsitako mozioa betetzeko.

Hala eta guztiz ere, ez da aise ulertzen dekretuetako batek (241/2000 dekretua) 2000ko urtarrilaren 1ean hartzea indarra eta besteak ez; ez da aise ulertzen ere 242/2000 dekretuak ez esatea laguntzak bateragarriak izan daitezkeela beste administrazio batzuek ematen dituzten laguntzekin. Ezin dugu ulertu, bestalde, ebazpen ezak edo administrazioaren isiltasunak herritarrari kalte egitea.

Horiek guztiak direla eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten diogu Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietarako Batzordeari:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernuak premiatzea 241/2000 eta 242/2000 foru dekretuak jarraian adierazten den bezala alda ditzan:

- 242/2000 Foru Dekretuaren azkeneko xedapenetako bigarrenak ondokoa esan behar du: "Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra. 2000ko urtarrilaren lehenaz geroztik izanen ditu ondorioak".

- 242/2000 Foru Dekretuan beste artikulua bat gehitu behar da. Hona testua: "Foru Dekretu honetan araututako dirulaguntzak beste administrazio publiko batzuek helburu berberetarako ezartzen dituztenekin batera jaso ahal izanen dira".

- Halaber, bi dekretuetan, bi hilabeteko epean ebazpen espresik ez emateagatik edo jakinarazpenik ez izateagatik eskariak ezetsizat joko direla adierazten duten idatz-zatiak aldatu behar dira, eskaria baietsi nahiz ezetsi beti erantzun espresua eman dezan Administrazioak, administrazioak bere burua defendatzeko aukera eduki ahal izateko.

Iruñean, 2000ko irailaren 8an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

F saila:
GALDERAK

Nafarroan Munduko Pilota Txapelketa egiteari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroan Munduko Pilota Txapelketak egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera egin dio Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariari idatziz erantzun diezaion.

Kontuan hartuta 2002. urtean Nafarroan eginen dela Munduko Pilota Txapelketa, gure taldeak ondokoa jakin nahi du:

1. Eratu al da dagoeneko Antolatzaileen Batzordea? Zer osaketa izanen du?

2. Egun dauden azpiegituretatik zein erabili nahi dira txapelketan?

3. Zein inbertsio egin behar dira alde batetik kirol pabilioitan eta bestetik kirolari, teknikari eta abarrei ostatu emateko?

4. Zenbateko gastua aurreikusi da, inbertsioetan eta antolamenduko bestelako gastuetan?

5. Gastu hori guztia finantzatzeko zein aurreikuspen ditu Gobernuak eta zenbateko inplikazioa izanen du Estatuak?

6. Zein lekutan eginen dira kirol jarduerak?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako 1998-2005 Planari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako 1998-2005 Planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erreglamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaiten:

Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planak (1998-2005) lehendabiziko urtea bete du indarrean eta ebaluazioa egiteko unea iritsi da. Esan bezala, Nafarroak aukera historiko paregabea du gizarte bazterkeriaren eta pobrezia-aren gaitzak desagertarazteko. Erkidego txikia gara, gaitasun ekonomikoa handikoa eta geure baliabideak kudeatzeko ahalmenaren jabe; are gehiago, egungo egoera ekonomikoa azken 20 urteotan Europan izan den onena dugu gizarte bazterkeria desagertzeko. Gure erkidegoan 7.000 pertsonarengan du eragina bazterkeriak, eta haren ahotsa ez zaigu ailegatzen, txirotasunak, gaisotasunak eta hezkuntza eskasak eraten duten pareta itxiak gainerako herritarrengandik arras urruntzen dituelako.

Aditu ditugun iritzien arabera, laneko txerkaketa ikastetxe berezien bideko enplegu berezira bideratu da gehien bat, eta gutxi erabili dira, ordea, merkatu normalizatuaren tresnak, aukera berdintasunaren aldeko politiken bidez lanpostuak sortzeko, herrilantetako kontratazioez eta azpikontratazioez baliatuz horretarako eta, modu horretan, inbertsio publikoaren gizarte errentagarritasuna areagotzeko.

“Gizarte integratioko” etxebizitzaren gaiarekin batera Iruñeko hirigintza espekulazioaren arazoa azaleratu da, gizatalde honentzat etxebizitza eskuratzea ia-ezinezkoa bihurtzeraino. Lana eta

etxebizitza funtsezkoak dira gizarteratzeko eta pobrezia eta bazterkeria gainditzeko, alde batera utzi gabe hezkuntza eta osasunaren arloak; hasierako aurrekontua ezin txikiagoa zenez, gure alderdia goitik behera aldatzen ahalegindu zen Planari zuzenketa batzuk aurkeztuz, zutabe horiek premia-egoerak gainditzeko oinarrizko euskarriak direlakoan.

Guztiagatik, jakin nahi dugu:

1)- 1999. urterako gizarte bazterkeriaren aurkako Planaren aurrekontua 1.950.745 milioi pezetakoa zen, neurri guztien kosturako; 2000. urterako, berriz, aurrekontua 2.311.032 pezetakoa zen. 1999. urtean eta 2000. urteko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu errearen berri jakin nahi dugu.

2)- Gutxieneko dirusarrerak bermatzeko neurrietarako aurrekontua 434 milioi pezetakoa zen 1999rako eta 609.720 milioi pezetakoa 2000rako. 1999. urtean eta 2000. urteko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu errearen berri jakin nahi dugu. Zenbat pertsonak jaso du neurri horien onura?

3)- Laneratzeko aurrekontua 9.395 milioi pezetakoa zen 1999an eta 37.500 milioikoa 2000. urtean. Zenbat pertsonak jaso du Nafarroako enpresa normalizatu publiko eta pribatuetan laneratzeko neurrien onura 1999ko ekitaldian eta 2000ko uztailaren 30a arte? Hauxe ere jakin nahi dugu: laneratu den pertsona bakoitzeko enpresek jasotzen dituzten dirulaguntzak, lana sustatzeko hartutako neurri administratiiboak eta 1999an eta 2000ko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu erreala.

4)- Gizarteratu eta laneratzeko taldeei dago kienez, Planaren aurrekontua 27.889 milioi pezetakoa zen 1999. urterako eta 44814 pezetakoa 2000. urterako. Abian jarritako taldeen kopurua, 1999. urtean eta 2000ko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu erreala.

5)- Etxebizitza arloan aurrekontua 921.118 milioikoa zen 1999. urterako eta 965.278 milioikoa 2000. urterako. 1999an eta 2000ko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu erreala. Saltzeko eta alokairuan emateko etxebizitzaren kopurua, guztira, Nafarroan, Iruñean eta Iruñerrian.

6)- Hezkuntza arloan Planaren aurrekontua eskasa zen erabat: 48.327 milioi 1999rako eta

berdin 2000rako, horietatik milioi 1 haurrak haurtzaindegira eramateko laguntzetarako eta 2 milioi eskolako materiala erosteko laguntzetarako. 1999an eta 2000ko uztailaren 30a arte neurri horietan betetako aurrekontu erreala eta epe horretan berean hezkuntza neurriak noraino bete diren orokorrean.

7)- Haur eta gazteentzako neurriak abiarazteko esku-hartzeari dagokionez, Haur eta gazteentzako taldeak 2000. urtean jarri ziren abian, 22.407 milioi pezetako aurrekontuarekin. Uztaila-

ren 30 arte betetako aurrekontua eta zenbat talde dauden jakin nahi dugu.

8)- Osasun arloan, Planaren aurrekontua 137.490 milioi pezetakoa zen 1999rako eta 173.490 milioikoa 2000rako. 1999an eta 2000ko uztailaren 30 arte betetako aurrekontua eskatzen da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzko 58/1999 Foru Aginduan egindako aldaketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzko 58/1999 Foru Aginduan egindako aldaketei buruzko galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Gizarte Gaietako eledun Maria Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatziz erantzuteko hurrengo galdera egin du:

Aurtengo apirilaren 14an, Biltzarreko Gizarte Gaietako Batzordeak erabaki bat onetsi zuen. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zuen, hilabeteko epean, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, ezgaitasunak jotako pertsonen aldizka ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, alda zezan.

Erabaki horren xedea zen foru agindu horren bidez araututako laguntzak berrantolatzea, ezgai-

tasun fisikoa, psikikoa edo zentzumenekoa duten eta familiek soilik zaintzen dituzten pertsonak laguntza horiek jasotzeki gera ez daitezkeen. Izan ere, egoera horretan daude lan edo eguneko zentroetan tokirik ez izateagatik doitze pertsonal eta sozialaren programetan sartu ez direnak. Horrez gain, azken urteotan sortutako hezkuntza programa arautuetan sartu ez diren adindunen arazoa konpondu beharko da.

Nafarroako Gobernuak berak luzatutako datuek ematen dute egoeraren berri: 12.673 pertsona daude % 33tik % 65era bitarteko minusbaliotasuna dutenak, 18tik 65 urte artekoak, oinarrizko errentaren onuradunak izan daitezkeenak, baina horietatik 70ek baizik ez dituzte 1999an eskatutako baldintza administratiboak bete.

Horregatik guztiagatik, jakin nahi dugu:

1)- Zein aldaketa egin du Nafarroako Gobernuak 58/1999 Foru Aginduan Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeko eta aipatutako bazterketa zuzentzeko, hau da, ezgaitasun maila desberdinak izanik, lan, hezkuntza edo eguneko zentro batean aritzeko aukerarik ez eta oinarrizko errentatik beherako prestazio ekonomikorik esku-ratzerik ez duten pertsona horiek egoera konpontzeko?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Adindunendako podologi laguntzaren programari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak adindunendako podologi laguntzaren programari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erreglamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaiten:

Gaur egun, podologia ez da osasun zerbitzu publikoaren barreneko prestazioetako bat, bizi kalitateari eusteko garrantzia badu ere, oinak funtsezko papera betetzen baitu pertsonok mugituz betetzen ditugun jardueretan. Zaharren % 95ek arazo podologikoren bat izaten dute; horren ondorioz, pertsona horien autonomia murrizten da, muga funtzionalak goizago agertzen dira eta laguntza iraunkorraren premia izaten da.

Adindunendako podologi laguntzaren programak 5.539 milioi pezetako zuzkidura du 2000. urtean, ia 100.000 pertsonarentzat. Dirulaguntzak jasoko dituztenak, gehien bat, erretiratuen elkarteak dira (15), Erriberakoak gehienak, baina halaber, gizarte zerbitzuen 3 mankomunitate (Allo, Cadreita eta Queiles Ibarra) eta 2 udal (Eguesibar eta Tafalla). Egoera hobetu nahian, joan zen apirilaren 13an Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onartu zuen, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena honako hauek egin ditzan:

“1. Sei hilabeteko epearen barrenean, oinarrizko osasun laguntzaren eta osasun laguntza espezializatuaren barne sar dezan podologi laguntza, eta podologo lanpostuak betetzeko deialdia egin prebentzio laguntza emateko, osasuna sustatzeko, arrisku taldeak zehazteko eta oinetako gaitzei tratamendu espezializatua emateko, aurretik eza-

rritako arau eta irizpideen arabera laguntza-estandarrei jarraiki.

2) Lehenbailehen har dezan bere gain podologi laguntza osoa ematea 65 urtez gaindiko herritarrei Nafarroa osoan; hori egiteko oinarrizko osasun laguntzako zentroak erabil ditzan eta osasun laguntzako zentro espezializatuak, eta, adindunei laguntza hori emateko arazoak dauden lekuetarako, hitzarmenak egin podologiako espezialistekin.”

Horregatik guztiagatik jakin nahi dugu:

1) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zer kudeaketa egin ditu podologi laguntza Oinarrizko Osasun Laguntzan eta Osasun Laguntza Espezializatuan sartzeko?

2) Zein neurri hartu dira podologi laguntza 65 urtetik gorakoei eman ahal izateko osasun etxeen bitartez edo zerbitzu hau herri guztietara eramaten duten hitzarmenak izenpetuz?

3) Osasunbidearen iritiz zenbat lanpostu, podologiaren espezialitatekoak, deitu beharko litzateke osasun zerbitzu hau eman ahal izateko?

4) Osasunbideak osasun zerbitzu honen kostuaren inguruko zenbatespenak egin al ditu, adindunei dagokienez, batetik, eta gainerakoei dagokienez, bestetik?

5) Iruña Nafarroako bizigune handiena izanik, hirugarren adinekoen podologi programa osoa erretiratu eta pentsiodunen elkarte bakar bati (Yoar) ematen zaio, eta gauza bera gertatzen da Tuteran, bigarren bizigune handiena den horretan. Zein dira hirugarren adinekoendako podologi programarako dirulaguntzak eman eta banatzeko irizpideak?

6) Podologi laguntzaren programa zergatik ez da bideratu udalez edo oinarrizko gizarte eta osasun zerbitzuez baliatuz, erretiratuen elkarte bidez egin beharrean?

7) Erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak beren bazkideez baizik ez dira arduratzen edo podologi laguntza behar duen orori ematen al zaio, bazkide izan ala ez?

Iruñean, 2000ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Aurtengo Nafarroako Jaialdiei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak aurtengo Nafarroako Jaialdiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erreglamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaiten:

Nafarroako Jaialdien 20. edizioa izan dugu aurtengoa. Jaialdi horiek 20 urte bete dituzte,

beraz, Nafarroan kultura eta kulturen arteko bideak sustatzen eta gure lurraldea beste herrialde eta erregioei irekitzen, ideien trukaketa eta kulturen elkar eragina helburu.

Horregatik guztiagatik, jakin nahi dugu:

1) Nafarroako Gobernuaren iritziz, Nafarroako Jaialdien egoitza aldatu izanak hobekuntzak ekarri ditu aurtentz, kantitatean zein kalitatean?

2) Zenbat ikusle izan dira aurtengo jaialdietan? Beste urte batzuekin alderaturik, hobetu al dira ikusle kopuruak eta ekitaldietarako sarrera-irteerak?

3) Zenbateko aurrekontua gastatu da azken jaialdietan eta zein etekin ekonomiko eragin ditu?

4) Nafarroako Jaialdiak egiteari uzteagatik haien etekinak galdu dituzten tokiei zer ordain eman zaie?

Iruñean, 2000ko irailaren 5ean.

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruzko galdera

JOSE MARIA AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak dokumentuak argitaratzeko epe eta irizpideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko irailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de

Barrena jaunak, Biltzarreko Erreglamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera egin dio Lehendakaritza kontseilariari.

1. Lehendakaritza Departamentuak ontzat ematen al ditu Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidaltzen diren dokumentuak argitaratzeko epeak?

2. Aldaketarik egin behar al du antolamenduan epe horiek laburtzeko?

3. Zein irizpideri jarraitzen zaio argitaratu behar diren dokumentuak hautatzeko?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1999ko abenduan bidali dituen erabaki, foru agindu eta ebazpenen bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1999ko abenduan Nafarroko Parlamentura bidali ziren erabaki, foru agindu eta ebazpenen bidez gauzatutako aurrekontu-aldaketen legezko tasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 28an egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu erabakiari eta ebazpenei buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko otsailaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

“Nafarroako Gobernuak, 1999ko urriaren 4an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak eginiko eskaria, hain zuzen ere kreditua gaitzeko ondoko kontusailetan: “INEMetik transferitutako langileen ordainsariak eta gizarte segurantzak”; lerroa, 32166-0; zenbatekoa, 112.000.000 pezeta; “INEMetik transferitutako zerbitzuen ohiko gastuak”; lerroa, 32195-4; zenbatekoa, 20.000.000 pezeta; “INEMetik transferitutako programetarako dirulaguntzak”; lerroa, 32207-1; zenbatekoa, 603.000.000 pezeta; eta “Bestelako altzariak eta ekipoa”; lerroa, 32208-0; zenbatekoa, 2.500.000 pezeta. Izan ere, aurrekontuetan ez dago nahikoa diru urteko azken hiruhilekoan izaniko gastuei aurre egiteko, Enplegu Institutu Nazionalak kudeatzen zituen eginkizunak eta zerbitzuak bere gain hartuko baititu Nafarroako Foru Komunitateak, lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan.

roako Foru Komunitateak, lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-teari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak laugarren xedapen iragankorrek ezarri zuen alde aurretik Foru Diputazioarekin akordioa eginda, Nazioko Gobernuak gauzatuko ditu transferentziak eta Errege Dekretu bide aldarrikatuko dira, eta hori Estatuko eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan aldi berean argitaratuko dira. Gainera, ondokoa ere aurreikusten du: akordio horien indarrez, haiek bete ahal izateko behar diren material eta giza baliabideak transferituko zaizkio Nafarroari.

Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuak Estatuko Administrazioari zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari transferitzeko arauak ezarri zituen.

Transferentzien Batzordea eraturik, hala ezar-tzen baitu 2. artikulua, batzorde horrek 1999ko apirilaren 28an egindako bilkuran behar zuen erabakia hartu zuen. Erabaki hori eraginkorra izateko ondokoak onetsi ziren: 811/1999 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa; haien bitartez, Foru Komunitateari eskualdatzen zaizkio Enplegu Institutu Nazionalak lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan zituen eginkizunak eta zerbitzuak.

Bilkura berean, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari Enplegu Zerbitzu Nazionaletik transferitutako zerbitzuak atxikitzeko Foru Dekretua onetsi zen. 1999ko urriaren 1etik aurrera izanen du indarra.

Horren guztiaren indarrez, Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik,

ERABAKI DU

Lehenengoa. 1999rako indarra duen aurrekontuan, kreditua gaitzea ondoko kontusailetan:

– 84000-1230-3222; proiektua, 70000; lerroa, 32166-0; izena, "INEMetik transferitutako langileen ordainsariak eta gizarte segurantzaz"; zenbatekoa, 112.000.000 pezeta.

– 84000-2269-3222; proiektua, 70000; lerroa, 32195-4; izena, "INEMetik transferitutako zerbitzuen ohiko gastuak"; zenbatekoa, 20.000.000 pezeta.

– 84000-4709-3222; proiektua, 70000; lerroa, 32207-1; izena, "INEMetik transferitutako programetarako dirulaguntzak"; zenbatekoa, 603.000.000 pezeta.

– 84000-6059-3222; proiektua, 70000; lerroa, 32208-0; izena, "Bestelako altzariak eta ekipoa"; zenbatekoa, 2.500.000 pezeta.

Ondoko kontusailean baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu da hori: 11100-2269-9111; proiektua, 30000; lerroa, 09480-0; izena, "Transferentzia berriak hartzeak sorturiko gastuak"; zenbatekoa, 737.500.000 pezeta.

Bigarrena. Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, (Idazkaritza Teknikoa), Enplegu Zerbitzu Nazionalera, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara, eta Departamentu horretako Kontu-hartzailatza delegatura."

"Nafarroako Gobernuak, 1999ko urriaren 11n eginiko bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ondoko kreditu-transferentzia eskatu dute: zenbatekoa, 25.000.000 pezeta. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: "Done Jakue Bideko erromesentzako aterpeak egokitzeko dirulaguntzak, entitateentzat eta partikularrentzat"; lerroa, 14955-8; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta.

Ondoko kontusailean baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu da transferentzia hori: "Etxebizitzetan jarduteko dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa"; lerroa, 99001-5; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei

dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU

Lehenengoa. 1999rako gastuen aurrekontuan, transferentzia bat egitea ondoko kontusailean: 42210-7800-2-4581; proiektua, 52000; izena, "Done Jakue Bideko erromesentzako aterpeak egokitzeko dirulaguntzak, entitateentzat eta partikularrentzat"; lerroa, 14955-8; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta. Ondoko kontusailean baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu da hori: 32220-7800-4312; proiektua, 20000; izena, "Etxebizitzetan jarduteko dirulaguntzak eta subsidioak. Foru programa"; lerroa, 99001-5; zenbatekoa, 25.000.000 pezeta.

Bigarrena. Erabaki hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Hezkuntza eta Kultura Departamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, Aurrekontu eta Diruzaintza Zerbitzura, Kontu-hartzailatza eta Kontabilitate Zerbitzura, eta aipatu departamentuetako kontu-hartzaile delegatu guztiei."

"Nafarroako Gobernuak, 1999ko abenduaren 18an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak ondoko kreditu-transferentzia eskatu du: zenbatekoa, 19.000.000 pezeta. Ondoko kontusailera eginen da transferentzia: "Lurrak eta ondasun naturalak"; lerroa, 07450-7.

Ondoko kontusailean baliagarri dauden kredituen kargura finantzatu da hori: "Suhiltzaileen parkeak"; lerroa, 90042-3; zenbatekoa, 19.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izanen ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU

